

Kontsumo arduratsuagoaren aldeko apustua

**EROSKI ETA LANTEGI BATUAK ERAKUNDEA
LANKIDETZAN ARIKO DIRA GARAPEN SOZIALA
ETA JASANGARRITASUNA SUSTATZEKO**

- 'Naia' proiektuaren bidez, zeina Lantegi Batuak erakundeak kudeatuko duen, entsalada eta berdura sorta berri bat merkaturatuko du kooperatibak, %100 ekologikoa
- EROSKIk Euskal Autonomia Erkidegoan dituen 29 saltokitan eskainiko ditu produktu horietako bi
- Elikadura arduratsuagoaren eta jasangarriaren aldeko lanean ari da kooperatiba, eta gaur egun 1.500 produktu ekologiko eskaintzen ditu

Elorrio, 2018ko uztailaren 12a.- [EROSKI](#) eta [Lantegi Batuak](#) erakundea elkarrekin ariko dira [Naia](#) proiektuan, eta entsalada eta berdura freskoak merkaturatuko dituzte, %100 ekologikoak, kooperatibak erabateko konpromisoa baitu gizarte garapenaren eta jasangarritasunaren alde. Bihartik aurrera, Euskal Autonomia Erkidegoan dituen 29 saltokitan eskainiko ditu produktu horietako bi: Batavia entsalada eta entsalada nahasia.

Lantegi Batuak erakundeak kudeatzen du proiektu hau, eta entsaladen eta berdura fresko eta ekologikoen marka berri bat eskaintzen du; jateko prest datozen denak, eta Bizkaiko zenbait etxalde ekologikorekin lankidetzan ekoitzi dira. Produktu sorta hori %100 jasangarria da hasi jatorritik eta saltokietara iristen den arte: ur kontsumo txikiarekin hazten dituzte, energia modu eraginkorrean darabilten instalazioetan, bioplastiko konpostagarriarekin ontziratuak daude eta garraio jasangarria erabiltzen dute saltokietara eramateko.

EROSKIk oraintsu berritu ditu [osasun eta iraunkortasun arloko konpromisoak](#), non elikadura arduratsuaren eta jasangarriaren alde egiten duen. *"EROSKI In lanean ari gara produktu ekologikoak merkaturatzeko, gure nahia delako elikadura jasangarria eskaintzea eta gure prozesuek, dendek eta produktuek ingurumenaren gain daukaten eragina murriztea. Gaur egun 1.500 produktu ekologiko ditugu, eta ildo horretan lan egin nahi dugu, beharrian guztietarako aukera ekologiko bat gutxienez eduki arte"*, adierazi du Alejandro Martinez Berriochoak, EROSKI Fundazioko Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak.

Lantegi Batuak erakundeak, bestalde, oso garrantzitsua deritzo EROSKIk eskaini dion aukerari, bere produktuak haren dendetan saltzeko modua izango baitu. *"Lantegi Batuetan ilusio berezia daukagu proiektu honetan, bereziki Eroskiren eskutik joango garelako. Naia proiektuan lan aukerak sortzen ditugu ezgaitasunak dituzten pertsonentzat, bai gure baratzeetan eta bai gure prozesatze plantan ere; horrekin, lan egonkortasuna sustatzen dugu pertsona horientzat eta inguru osasungarri bat sortzen dugu, haien ongizatearen onerako"*, azaldu du Txema Francok, Lantegi Batuak erakundeko zuzendari nagusiak.

Inguruaren garapen sozial eta ekonomikoa

Elikadura jasangarriagoa sustatzeko arrazoiak ez dira ingurumen arlokoak bakarrik, arrazoi sozialak ere badira tartean. Inguru hurbileko garapen sozial eta ekonomikoaren aldeko apustua ere egiten du EROSKIk, baita tokiko enplegua eta aberastasuna sustatzearen aldekoa ere. *"Banaketa enpresa gisa, harreman hurbila dugu tokian-tokian nekazaritzako elikagaiak ekoizten dituzten hornitzaileekin, haiei babesa emateko gaude, eta gizarte eragileak garen heinean, inplikatu egiten gara gure jardun eremuko gizartearekin, kulturarekin eta elkartasunarekin, eta sortu zenetik bideratzen dugu enpresa gisa ditugun irabazien zati bat inguru hurbilera"*, adierazi du EROSKI Fundazioko Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak.

Naia proiektuak bete-betean bat egiten du kooperatibak darabilen filosofia horrekin. *"Gure lurra da gure inspirazioa. Gurekin lankidetzan ari diren ustiategiekin batean, arreta handiz ekoizten ditugu elementu %100 ekologikoak, ENEEK erakundeak egiaztatuak. Prozesatzeko garaian, ekoizpen teknikarik jasangarrienak erabiltzen ditugu eta zaindu egiten ditugu gure berduren zaporeak eta testurak"*, azaldu du Txema Francok.

Berrikuntza soziala

Ezgaitasunak dituzten langileak gizarteratzearen aldeko apustua egiten du EROSKIk, eta lan aukerak eskaini nahi dizkie egoera txarrean dauden kolektiboak. Horren adibide da Lantegi Batuak erakundearekin berriki abiatu duen lankidetzak hau.

Era berean, [GUREAK](#) erakundearekin ere badu beste hitzarmen bat kooperatibak, eta ildo horretan, ezgaitasuna duten pertsonak osorik kudeatzen dituzten 3 supermerkatu ditu egun, eta esan liteke proiektu guztiz eredugarria dela horako hori berrikuntza sozialaren arloan eta pertsonak lan munduan txertatzeko



ekimenetan. Horrekin batean, beste erakunde batzuekin ere ari da lankidetzan EROSKI, adibidez Once Fundazioarekin, Gurutze Gorriarekin eta Ijitoen Idazkaritzarekin, egoera txarrean dauden kolektiboak gizarteratzeko helburuz. 2017. urtean, gizarte bazterketa pairatzeko arriskua zuten 200 gazte inguruk praktikak egin zituzten EROSKIIn, eta horien arteko %24k lan kontratu bat lortu zuten gero dendetan.

LANTEGI BATUAK

Irabazteko asmorik gabeko erakundea da Lantegi Batuak, eta lan aukera egokituak sortzen ditu ezgaitasunak dituzten pertsonentzat, nagusiki adimen ezgaitasuna dutenentzat eta bizkaitarrak direnentzat, ahalik eta bilakaerarik eta bizi kalitaterik onena eduki dezaten. Ezgaitasunaren arloan Bizkaian egin den enpresa ekimenik handiena du honako hau. Gaur egun, adimen ezgaitasuna, ezgaitasun fisikoa eta buru nahasmendua duten 2.500 pertsonarentzat sortzen ditu lan aukerak industria arloko eta zerbitzuetako jardueren bidez. Hogeita bost zentro ditu Bizkaian eta zerbitzu sare zabala; horien bidez, *outsourcing industrial* eta *facility services* arloko zerbitzuak eskaintzen dizkie 1.000 bezerori baino gehiagori, eta bere kudeaketaren oinarrian dauden balioek pertsona jartzen dute erdigunean, baita jasangarritasuna, berrikuntza, ekintzailtza eta bikaintasunaren bilaketa ere.

EROSKI

Kooperatiba izaerako Espainiako lehen banaketa taldea da EROSKI, eta erreferentziarako operadorea Galizian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Katalunian eta Balearretan. 1.651 saltokiko sare komertziala du. Saltoki motari dagokionez, baditu supermerkatuak, hipermerkatuak eta cash&carry-ak eta, horretaz gain, gasolindegia, bidaiak bulegoak eta kirol ekipamendurako dendak ere bai. Sortu zenetik bertatik, gizarte ekintzako hainbat ekimen gauzatzen du, honako helburu hauekin nagusiki: bizimodu osasungarriarekin zerikusia duten ohiturak lantzea, kontsumitzailea trebatzea, ingurumena babestea eta elkartasuna sustatzea.

Harremanetarako:

EROSKI Komunikazio Korporatiboko zuzendaria Xurdana Fernández Herrán, Tel.: 946 211 214 comunicacion@eroski.es Prensa Bulegoa – Consejeros del Norte Joana G. Landazabal / Edurne Izquierdo Tel.: 944 158 642	LANTEGI BATUAK Ana Coria Yanguas comunicacion@lantegi.com Komunikazio Saila Tel. 94 453 59 99
--	--